

DONOSTIAKO UDALEKO 63 ADMINISTRARI PLAZA BEHIN BETIKO BETETZEKO DEIALDIA.

CONVOCATORIA PARA LA PROVISIÓN DEFINITIVA DE 63 PLAZAS DE ADMINISTRATIVO/A DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN.

Deialdiko Epaimahai Kalifikatzaileak, 2022ko otsailaren 2an egindako bileran, erabaki hauek hartu ditu:

El Tribunal Calificador de la convocatoria, en sesión celebrada el día 2 de febrero de 2022, ha adoptado los siguientes acuerdos:

Lehenengoa.- Dei egitea lehenengo ariketa gainditu duten izangaiei **oposizio-faseko bigarren ariketa (praktikoa)** egitera. Ariketaren eguna, ordua eta lekua honako hauek dira:

Primero.- Convocar a las personas que han superado el primer ejercicio a la realización del **segundo ejercicio (práctico) de la fase de oposición**; que se realizará:

Eguna: **2022ko otsailaren 25a.**

Día: **25 de febrero de 2022.**

Ordua: **10:30.**

Hora: **10:30.**

Tokia: **FICOBA** (Iparralde Hiribidea 43, Irun).

Lugar: **FICOBA** (Av. de Iparralde 43, Irún).

Izangaiek identifikazio agiria eraman beharko dute azterketa egunean: NANA, pasaportea edo gida baimena.

Las personas aspirantes deberán acudir a la realización de las pruebas provistas del DNI, pasaporte o carné de conducir.

Aretoan maskara homologatua erabiltzea nahitaezkoa izango da une oro.

En el recinto el uso de la mascarilla homologada será obligatorio en todo momento.

Bigarrena.- Izangaiei gogorarazten zaie, 2021eko abenduaren 21ean jakinarazi zen bezala, ariketan hainbat aukerako galderen sorta bati erantzun beharko zaiola. Galderak ariketan planteatuko diren hainbat egoera praktikoekin erlazionatuko dira. Galdera bakoitzak hiru erantzun izango ditu aukeran eta erantzun zuzen bakarra.

Segundo.- Recordar a las personas aspirantes, que tal y como se informó el día 21 de diciembre de 2021, el ejercicio consistirá en contestar por escrito a un cuestionario de preguntas con respuestas alternativas. Las preguntas se relacionarán con diferentes supuestos prácticos que se plantearán en el ejercicio. Cada pregunta tendrá tres opciones de respuesta y una única respuesta correcta.

Ariketaren puntuazio zuzena (P), honako formula hau aplikatuz lortuko da: zuzeneko puntuazioa (P) da erantzun zuzenen kopurua (A) ken erantzun okerren (E) kopuruaren laurden bat; hau da, $P = A - E/4$. Efektu hauetarako, erantzuten ez diren galderak ez dira okertzat emango.

La puntuación directa del ejercicio será el resultado de aplicar la siguiente fórmula: puntuación directa (P) es igual a número de aciertos (A) menos la cuarta parte del número de errores (E); es decir, $P = A - E/4$. A estos efectos, las preguntas no contestadas no tendrán la consideración de error.

Izangaiek ezingo dute materialik eraman ariketa egiteko.

Las personas aspirantes no podrán llevar ningún material para realizar el ejercicio.

Donostian, sinaduraren egunean

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN IDAZKARIA

Alfonso Jiménez Grandes